

2018ko OTSAILAREN 27ko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

Herriko Kontseilua, 2018ko otsailaren 27an arratseko 7 orenetan Herriko Etxean bildu da, Christian DEVEZE lehen axuantaren lehendakaritza pean.

Hor dira : Christian Devèze Jn, Eliane Noblia And, Frédéric Bardin Jn, Pascale Lespade And, Didier Irastorza Jn, Eliane Aizpuru And, Henri Saint Jean Jn, Anne-Marie Pontacq And, axuantak, Vincent Bru Jn, Vincent Goytino Jn, Christiane Hargain-Despèries And, Patrice Dor Jn, Yolande Huguenard And, Jean-Jacques Lassus Jn, Argitxu Hirigoyen And, Corinne Othaceguy And, Maryannick Hirigoyen And, Roger Barbier Jn, Pascal Bourguet Jn, Véronique Larronde And, Camille Jenvrin Jn, Argitxu Hiriart-Urruty And, Philippe Bacardatz Jn, Nathalie Aïçaguerre And, Amaia Beyrie And, herriko kontseilariak.

Eskas edo barkatuak: Bernadette Jougleux And, Auzapeza, Jean-Noël Magis Jn Peio Etchelecu Jn, Carmen Gonzalez And, herriko kontseilariak.

Ahalordeak: Bernadette Jougleux And andere Auzapezak Christian Devèze Jaunari, Jean Noël Magis Jaunak Pascal Bourguet Jaunari, Peio Etchelecu Jaunak Patrice Dor Jaunari, Carmen Gonzalez Andereak Christiane Hargain-Desperies Andereari

1 – Saioko idazkariaren izendatzea

Aho batez, Argitxu Hirigoien saioko idazkari gisa izendatu da.

Devèze jaunak, Auzapez Anderearen eskasagatik barkamenak galdeginez hasi du saioa.

2 – Aitzineko bi saioetako bilkura agirien onartzea

Devèze Jaunak, 2017ko abenduaren 11ko eta 19ko azken saioetako bilkura agiriei buruzko oharrik duten galdegin die Herriko Kontseiluko kideei.

Oharrik ez da izan eta bi bilkura agiriak onartu dira.

3 – 2017 kudeaketa kontuen bozka

Lurralde Kolektibitateetako Kode Orokorren arabera, Devèze Jaunak oroitarazi du, herriko kontseiluak Diruzainak jakinaraziriko 2017 urteko kudeaketa kontuei buruzko iritzia eman behar duela. Herriko kontseiluko kideen, aurrekontu nagusiko administrazio kontuen eta aurrekontu gehigarrien apreziazioari loturiko obrak abian eman aitzin kontu horiek onartzea baitezpadakoa da.

Devèze Jaunak, kontu horiek, alde guzietarik, administrazio kontuetan agertzen diren eta onartzeko aurkezten diren idazpenen arabekoak direla zehaztu du.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

4 – 2017ko administrazio kontuen bozka

Devèze Jaunak, 2017ko administrazio kontuen bozketarako saioko lehendakari Eliane Noblia bigarren axuanta izan dadin proposatu du et beste hautagairik baden galdegin. Eliane Noblia, hautagai bakarra, lehendakari izateko aho batez hautatua izan da.

Devèze Jaunak zehaztu duenez, Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorraren xedapenen arabera, 2018ko otsailaren 19an hiru administrazio kontuen (nagusia, saneamendu kolektibo eta hilobi-kolunbario) finkatze proiektu bat aurkeztu zitzaion finantza batzordeari.

➤ Aurrekontu nagusia

Devèze Jaunak funtzionamendu eta inbestimendu ataletako zehaztasunak eman ditu.

Funtzionamendu diru sartzeak 6.718.927,33 €-koak dira, atal bereko xahutzeak 5.946.503,82 €-koak direlarik, ondorioz atalak 772.423,51 €-ko soberakina du.

Inbestimendu diru sartzeak (2.896.832,65 €) inbestimendu gastuak (3.628.686,89 €) hein batean baizik ez dituzte estaltzen eta 731.854,24 €-tan finkatzen den finantzatze beharra uzten dute.

Emaitza orokorrak 40.562,27 €-ko soberakina uzten du.

Devèze Jaunak funtzionamendu ataleko kontu guziak aurkeztu ditu, bai diru sartzeena eta baita xahutzeena ere.

Funtzionamendu xahutzeei dagokionez, batzordea bildu zelarik Aïçaguerre Andreak 6232 artikuluari (festa eta zeremoniak) zegokion pausatu zuen galderari buruzko zehaztasun bat eman du.

Festa, zeremonia eta ospakizunendako bi kontu baliatzen dira. 6232 (festa et zeremoniak) eta 6257 (ospakizunak) artikuluek ari gara.

Kontabilitate mailan, artikulua horietan ez da kargen atxikimendu berezirik, ez bada kolektibitateak errepikatzen diren xahutzeak 6232 artikulua pean agerraraztea erabaki duela, ospakizunen kontuan urtero errepikatzeak ez liratekeen behin behineko xahutzeak sartuko liratekeelarik.

Devèze Jaunak, eremu hori balio absolutuan esanguratsua baldin bada ere (85.387,10 €), iazko urtearekiko atxikia dela (87.146,70 €) azpimarratu du, 2016 urtean 2015 urtearekiko emendatze handia pairatu baldin bazuen ere.

Langileen kargei dagokionez, Devèze Jaunak langileen kostua ontsa menperatua dela zehaztu du.

Estratuko beste herri anitzen ratioarekin konparaturik, gure herriarena bizi maila onean kokatua da, Aurrekontuen Orientabidearen Eztabaidan agertuko den bezala.

“Kudeaketa arruntetako beste kargei” dagokionez, Devèze Jaunak adierazi du hautetsien ordainsariak apaldu direla eta, ondorioz, kolektibitatearendako kostua ere apaldu dela.

Turismo Bulegoaz kanpo, eskubide pribatuko pertsonendako funtzionamendu diru laguntzak aitzineko urtekoen parekoak dira, azken urteetan haien diru laguntzak sistematikoki apaldu dituzten kostaldeko kolektibitate batzuetan ez bezala. Gure herriak, urte batetik bestera zenbateko bertsua atxiki nahi luke.

Hiriart-Urruty Andereak, funtzionamendu diru sartzeen 1788 artikuluan FaLKak duen parte hartze apaltzeari buruzko azalpenak galdegin ditu.

Devèze Jaunak ihardetsi dio, 2016a arte, artikuluko horrek FaLKaren diru laguntza jasotzen zuela haurtzaindegiarendako (45 leku) eta, Haurtzaro Gazteria Kontratuaren baitan (HGK), AGAZarendako. FaLKak diru laguntza hori urte bateko gibelapenarekin esleitzen zuela ere zehaztu du.

2016ko urtarrilaren 1etik aitzina haurtzaindegi eskumena galdurik ere, herriak, 2015 urtearen arabera kalkulaturiko laguntza osoa eskuratu zuen 2016an (haurtzaindegi eta AGAZ). 2017az geroztik, herriak ez du gehiago haurtzaindegiarendako diru laguntzarik jasotzen, hortik heldu da apaltzearen egiaztatzea.

Hiriart-Urruty Andereak hautetsien ordainsarien apaltzearen arrazoia jakin nahi du.

Bardin Jaunak erantzun dio, Bru Jauna diputatu gisa hautatua izan denetik kontseilari ordezkari bat gutiago badela.

Devèze jaunak apaltze horretan beste elementu bat sartzen dela gehitu du, hau da, ordainsarrietan kalkulatzeko diren karga sozialen eragina eta, partikularki, Prefon antolakundearena, zeinean, Auzapez Andereak eta Anne-Marie-Pontacq Andereak ez bezala, auzapez ohiak kotizatzen zuen.

Bacardatz Jaunak ohartarazi du, 024 artikuluko inbestimendu diru sartzeetara daraman 775 artikulua zenbatekoa desberdina dela.

Devèze Jaunak erantzun dio, 775 artikulua zenbateko osoa (21.157 €) partikular bati eta Departamenduko Kontseiluari bi ibilgailuren eta lursail baten erosteari dagokiola eta hori administrazio kontuan erregistratua dela.

Bacardatz Jaunak, funtzionamendu diru sartzeetako higiezin erosten emaitzen (775) eta inbestimendu diru sartzeetako inbestimendu erosten (024) arteko lotura zein den galdegin du.

Devèze Jaunak adierazi du, inbestimendu erosten kontua (024) aurrekontuen baitan baizik ez dela baliatzen. 775 kontua aldiz, administrazio kontuak finkatzean baizik ez da baliatzen.

Ondoren, Devèze Jaunak, inbestimendu ataleko kontu guzien irakurketa egin du, bai diru sartzeena eta baita xahutzeena ere. Operazio horiek, Herriko Kontseiluak 2017 urtean zehar onartu zituela zehaztu du.

2017ko administrazio kontuak operazio horiek hartzen ditu, gauzatze osoa edo partziala 2017an duten neurrian.

Aiçaguerre Andereak Ad'apari buruzko galdera pausatu du.

70.000 €-ko zenbatekoa 2017an aurrekontuan sartu zen eta paraleloki ez da lanik izan.

Finantza batzordea bildu zelarik, lan anitz egina izan zela erran zen.

Baina, Aiçaguerre Andereak zehaztu du herriak hiru urteko plan baterako engaiatu zela. 2017an eginikoak 2016ko lanak ote diren galdegin du eta, ondorioz, 2017koak gibelatuak izan ote diren.

Dena dela, kolektibitatea hiru urteko plan horrekiko beranta anitz hartzen ari dela egiaztatu du.

Devèze Jaunak oroitarazi dio galdera horrendako arrapostua jadanik emana izan zela finantza batzordean. Hala ere, ondoko finantza aldian eta kudeaketa gisa egina izanen denaz aparte, herria, xahutzea 150.000 € eta 200.000 € artean kokatzen entseatuko da, salbu batzordearen aurkako iritzirik balego.

Saint Jean Jaunak gehitu du, herriak, esparru horretan lau eraikin zaharberritzea aurreikusi duela 2017 urterako. Eraikin horietan lan batzuk eginak izan dira, oraindik xehetasun batzuk lantzeko gelditzen baldin badira ere: martxo finitzerako bukatuak beharko lirakeen herriko etxeko eskailera baranda, CMSerako seinaletika, Larrazkenako gutunontzia. Egia da kolektibitateak Ad'aparen baitan gauzatu behar zituen sekuentzia batzuetan beranta duela baina 2018ko apiriletik aitzina afera fiteago joan dadin ahaleginduko da. Irisgarritasun batzordearen ondoko bilkurarako eraikinen bisita egitea aurreikusi da.

Aiçaguerre Andereak zehaztu du, 2015ean aurkezturiko egutegia aztertu ondoren gauza anitz egin gabe zirela egiaztatu duelako pausatu duela galdera hori.

Saint Jean Jaunak herriak hiru urterako bi plan dituela ihardetsi dio.

Devèze Jaunak ohartarazi du, barreiatzea komeni den xahutze handiak direla eta, maluruski, ez direla diruz lagunduak, nahiz eta azken elementu honek ez duen denboran berantza hartzerik justifikatzen.

➤ **Saneamendu kolektiboaren aurrekontu gehigarria**

Devèze Jaunak adierazi du administrazio kontu hori aurkeztzen duen azken aldia dela. Funtzionamendu eta inbestimendu atalak zehaztu ditu.

Funtzionamendu diru sartzeak 752.239,43 €-koak dira, xahutzeak 535.044,15 €-koak direlarik, ondorioz atalak 217.195,28 €-ko soberakina du.

Inbestimendu diru sartzeak 1.804.787,29 €-koak dira, atal bereko xahutzeak 444.417,23 €-koak direlarik, ondorioz atalak 1.360.370,06 €-ko soberakina du.

Emaitza orokorrak 1.77.565,34 €-ko soberakina agertzen du.

Devèze Jaunak funtzionamendu eta inbestimendu ataletako kontu guziak aurkeztu ditu, bai diru sartzeena eta baita xahutzeena ere.

Eskumen horren galtzeari dagokion informazio gehigarria eman du. 2017ko abenduaren 31n gauzatzeko gelditzen direnen artean, herriak, finitzea Euskal Hirigune Elkargoak bermatuko duen lanak abian eman ditu.

2017an harturiko engaiamenduen arabera, egiteko gelditzen diren horiek 1.315.679 €-ko kostua dute.

Gure autofinantzaketak diruztatzeko gaitasunik ez zuenez, Herriko zerbitzuek lan gehigarriak kokatzeko elkarlan hertsia eraman dute EHEkoekin, bereziki Delbharre sektorean eta Alki gunean. Ikerketen ondorioz heldu den honi dagokion kostuaren estimazioa 2018 urtean kokatua izan da eta, dirudienez, bi operazio horiek EHEak onartu lituzke.

2017 urte emendatu gisa egiteko gelditzen diren lanendako 2018 urterako aurreikusiak diren bi xantier horien 2.081.953 €-ko aurrekontuan, EHEari eskualdaturiko soberakinak 2.203.000 € ingurukoak dira.

Ondorioz, diru sartzeek saneamendu kolektiborako gaur egun estimaturiko xahutzeak estaliko dituzte.

➤ **Hilobi kolunbario lanen aurrekontu gehigarria**

Devèze Jaunak atal bakarra aurkeztu du, hau da, funtzionamenduarena.

Funtzionamendu diru sartzeak 68.624,99 €-koak dira, xahutzeak 55.536,44 €-koak direlarik, ondorioz atalak 13.088,56 €-ko soberakina du.

Galderarik ez denez eta legearen arabera, Devèze Jauna eta 2017ko urtarrilaren 1etik uztailaren 22ra auzapez izan zen Bru Jauna gelatik atera dira eta Noblia andereak, atalka, aurkezturiko administrazio kontu desberdinak bozkatzera deitu du.

➤ **Aurrekontu nagusia:**

- Funtzionamendu eta inbestimendu atala : **gehiengoak** onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty And, Philippe Bacardatz Jn, Nathalie Aïçaguerre And, Amaia Beyrie And.

➤ **Saneamendu kolektiboaren aurrekontu gehigarria:**

- Funtzionamendu eta inbestimendu atala : **gehiengoak** onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty And, Philippe Bacardatz Jn, Nathalie Aïçaguerre And, Amaia Beyrie And.

➤ **Hilobi kolunbario lanen aurrekontu gehigarria**

- Funtzionamendu atala : **gehiengoak** onartua.

Devèze eta Bru Jaunak gelan sartu dira.

Noblia Andereak bozkaren emaitza oroitarazi du.

Devèze Jaunak eskertu du eta emaitza Auzapez Andereari lehenbailehen helaraziko diola erran du.

5 - 2017ko emaitzen esleitzea

Devèze Jaunak ondoko esleitzea proposatu du:

- 2017ko aurrekontu nagusiko 772.423,51 €-ko funtzionamendu emaitza positiboa 2018ko jatorrizko aurrekontuari dagokion inbestimendu diru sartzeetara.
- 2017ko hilobi-kolunbario ataleko aurrekontu gehigarriko 13.088,56 €-ko emaitza positiboa 2018ko jatorrizko aurrekontuari dagokion funtzionamendu diru sartzeetara.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

6 – 2017ko lurraren gaineko politikaren bilana

Devèze Jaunak oroitarazi du, Lurralde Kolektibitateetako Kode Orokorreko L.2241-1 artikulua arabera, Herriko Kontseilua iragan urteko lurraren gaineko politikaren bilanaren inguruan eztabaidatzera gonbidatua dela.

1. Aurrekontu orokorra

Ez da erosketarik izan.

Lur trukaketa eta salmentak izan dira, bereziki:

- Partikular bati, 2a 24ca hedaturako lursaila Fagaldenborda izeneko lekuan eta 21a 37ca hedaturako lursaila Olhaberriague izeneko lekuan, 1.913 €-ko zenbatekoarendako.
- Departamendu Kontseiluari, bi lursail (28ca eta 2a 91ca hedaturakoak) Fagaldenborda izeneko lekuan, 44 €-ko zenbatekoarendako.

2. Hilobi-kolunbario aurrekontu gehigarria

- Hilobi baten etea bederatzi hauts-kutsa hobiren erostea zergarik gabeko (ZG) 7.740 €-ko zenbatekoarendako.
- Edukiera desberdineko hilobien saltzea ZG 8.624,99 €-ko zenbatekoarendako.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

7 – GEUZ: diru laguntza aitzinatzea

Saint Jean Jaunak adierazi du, 2018ko jatorrizko aurrekontua adostu artean, Herriko Kontseilua GEUZaren aldeko diru laguntza aitzinatzeari buruzko iritzia ematera gonbidatua dela, 245.000 €-koa litzatekeen 2018rako galdeginiko diru laguntzaren %16a esleitzeko, hots 40.000 €.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

8 – Herriko burtsak

Saint Jean Jaunak oroitarazi du, gizarte gaietarako batzordea iragan otsailaren 13an bildu zela 2017-2018 ikasturterako herriko burtsa galdeak aztertzeko.

Hemezortzi txosten pausatuak izan dira. Ikasle guziek Estatuko burtsa jasotzen zutela zehaztu du eta batzordeak burtsa horien zenbatekoaren %15a herriko burtsa gisa esleitzea proposatu du.

Herriko Kontseilua, 6.206 €-koa den hemezortzi herriko burtsen esleitzearen inguruan iritzia agertzeraz gonbidatua da, kredituak jatorrizko aurrekontuan aurreikusitak dira.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

9 – Bordart etorbidearen zabaltzea: inkesta publiko ondoko erabakia.

Bardin Jaunak oroitarazi du, 2017ko azaroaren 27ko delibero bidez 72 zenbakidun herriko bidea zabaltzeko proposamena kontuan hartu ondoren, Auzapez Andereak, 2017ko abenduaren 8ko erabaki bidez izendatu zen Ibarrart Evelyne andere komisario inkestariari inkesta publikoa egin zezan galdegin ziola. 2017ko abenduaren 26tik 2018ko urtarrilaren 11ra gauzatu zen inkestaren txosteneko dokumentu desberdinak eta komisario inkestariaren ondorioak irakurri ondoren:

Kontuan harturik, legek xedatzen dituen betebeharrak guztiak bete dituela;
Kontuan harturik, Bordart etorbideko zati batzuetan bidea zabaltzeko beharra badela;
Kontuan harturik, jabeak euro sinbolikoaren truk bidearen oinarritzko lurra esleitzen duela;
Kontuan harturik, proiektuaren aurkako erreklamaziorik ez dela izan;
Kontuan harturik, pertsona batek bide bazterrean zen ezkia atxikiko zenez galdegin duela;
Kontuan harturik, herriak zuzentzea ez moztea aurreikusi duela,
Kontuan harturik, komisario inkestariaren aldeko iritzia

Herriko Etxea ondokoari buruzko iritzia agertzeraz gonbidatua da:

- Bordart etorbidea deritzon 72. herriko bidearen zabaltzea,
- Euro sinbolikoaren truk operazioarendako beharrezkoak diren lurren erostea, eta 270 m²-ko hedadura osatzen duten AV 254, 258, 261 lursailak eremu publikoan sartzea.

Hiriart-Urruty Andereak galdegin du, Ibarrart Anderea nork izendatu duen inkesta horretarako.

Bardin Jaunak erantzun dio Auzapez Andereak izendatu duela.

Hiriart-Urruty Andereak komisario inkestari izateko zein gaitasun behar den jakin nahi luke.

Bardin Jaunak ihardetsi dio, ez dela gaitasun berezirik ukan behar. Hilabete batez herritarrei harrera egiteko libre izan behar da.

Hiriart-Urruty Andereak, THPrako pertsona bera izendatuz gero kezkarria litzatekeela deritzo.

Bardin Jaunak erantzun dio ez dela hala izanen. Izan ere, azken inkesta hori EHEak eginen du, haren eskumenetan baita.

Hiriart-Urruty Anderea satisfos agertu da, Ibarrart Anderea gehiengoko kidea izanki.

Bardin Jaunak gehitu du, bere egitekoa betez, komisario inkestariak helarazten zaizkion hausnarketa guziak idazteko betebeharra duela. Ezin duela edozein gauza egin.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

10 – Juanchuto etorbidearen zabaltzea: lur esleitze erregulartzea

Bardin Jaunak zehaztu du lur baten esleitze erregulartzeaz ari garela. Lanak jadanik eginak izan dira, ondorioz, ez da inkesta publikorik egiteko beharrik.

Bardin Jaunak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio, herriak, hunkituak ziren biztanleen adostasunarekin bide obrak egin zituela aste batzuk lehenago. Bide bazterrean aparkalekuak egiteko Juanchuto etorbidearen zabaltzeaz ari gara (AIEC gelako aparkalekuak). Herriak operazio horiek egiteko baliatu diren lurak erosi dituela egiaztatzen duten behin betiko agiriak ez dira osoki eginak izan. Bardin Jaunak, Juanchuto etorbidean aparkalekuak egiteko baliatu zen lursaila euro sinboliko bidez eskuratuz, egoera hori, hots, orain dela urte batzuk gauzatu zen bide operazioa, erregulartzea eta 107 m²-ko hedadurako AW 213 lursail hori eremu publikoan sartzeari proposatu dio Herriko Kontseiluari. Fresa guziak (akta, geometra...) herriaren gain izanen direla zehaztu du.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

11 – Sorhainde Plaza: lur esleitze erregulartzea

Bardin Jaunak zehaztu du, gisa berean Sorhainde plazako saltegien aitzineko aparkaleku erregulartzeaz ari garela. Herriak, hunkituak ziren biztanleen adostasunarekin, 2016a finitzean – 2017 hastapenean plaza horren berrantolaketa eta konponketa egin zituela oroitarazi du. Herriak lur horiek operazio horiek gauzatzeko eskuratu dituela egiaztatzen duten behin betiko agiriak ez dira eginak izan. Sorhainde plazaren antolaketarako baliatu zen

lurra euro sinboliko bidez eskuratuz bide operazio hori erregulartzea eta 763 m²-ko hedadura duen AZ 226 lursaila eremu publikoan sartzea proposatu dio Herriko Kontseiluari.

Bacardatz Jaunak ohartarazi du, eratzikia izan den planoak ulergaitza dela.

Bardin Jaunak planoari buruzko zehaztasunak eman ditu.

Barbier Jauna gelan sartu da.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du. Jabekideetarik bat denez ez du bozkan parte hartuko.

Aho batez onartua.

12 – Euskal Hirigune Elkargoa: hirigintza baimenen bideratzeak.

Bardin Jaunak oroitarazi du, Euskal Hirigune Elkargoa sortu aitzin hirigintza agiriak Errobi Herri Elkargoak tratatzen zituela. Eskumen hori 2017ko urtarrilaren 1ean EHEra eskualdatu zenez, jagoitik, azken honek Kanbo herriko hirigintza agiriak urrik bideratzen ditu. 2017ko abenduan, herriak, agiri horiek ordaindu beharko zirela jakinarazten zioen EHEaren gutuna jaso zuen. Zehaztu duenez, eraikitze baimen batek adibidez, 150 €-ko kostua du, %50 herriaren gain eta %50 EHEaren gain delarik.

Gehiengoan den taldearen baitan hausnartu ondoren, herriak, 2018 urterako eta hirigintza agirien bideratzerako baizik ez dio bere adostasuna agertuko EHEari. Kanboko herriarendako 2017an bideraturiko agirien arabera, EHEak urteko 12.000 € inguruko aurrekontua finkatu du zerbitzu horrendako.

Herriko Kontseilua, Auzapez Andereari EHEarekin hitzarmen bat izenpetzeko baimena ematera gonbidatua da, Kanboko herriko eremuan lurren okupatzeari eta baliatzeari dagozkion baimen galde guztiak EHEaren esku utz ditzan (eraikitze, antolatze, suntsitzeko baimenak, hirigintza ziurtagiriak, aitzinetikako deklarazioak).

Hitzarmen hori urte beteko epearendako izenpetuko litzateke, herriak, hirigintza zerbitzuko bi langile formatu ondoren eta bideratze horiendako beharrezkoak diren informatika programak eskuratu ondoren, dossier horien bideratzea 2019an berreskuratzeko asmoa baitu. THParen berrikustea 2018an finitu beharko litzateke, eta horrek bi langileei hirigintza bideratze lanendako denbora utzi behar lieke.

Hiriart-Urruty Andereak galdegin du hitzarmen proiektua EHEko kide diren herri guztiendako bera den edo Kanborendako berezia.

Bardin Jaunak ihardetsi dio hitzarmen hori herri guztiendako bera dela.

Devèze Jaunak gehitu du Kanboko herria hitzarmen hori urte beterako soilik izenpetu duten bakarretarik izan behar dela, gainerateko herri gehienek behin betiko izenpetu dutela.

Aïçaguerre Andereak formatuko diren langileak nor izanen diren galdegin du.

Bardin Jaunak erantzun dio, gaur egunean hirigintza zerbitzuan lan egiten duten bi langile direla. Ez da lanpostu sortzerik izanen.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

13 – 2018ko sartzeta: eskola denboraren antolaketa.

a) Eskola denboraren antolaketa.

Noblia andereak oroitarazi du, 2014ko irailaz geroztik Herri guziak bederatzi egun erdiko irakaskuntza orenetan antolatua den eskola erritmo berriaren pean direla.

2017ko ekainaren 28an Aldizkari Ofizialean argitaratu zen irakaskuntza publikoko ama eskolen eta lehen mailako eskolen astearen antolaketak jasan zuen baimen bereziari dagokion 2017ko ekainaren 27ko 2017-1108 dekretuaren ondotik, herriek, eskola kontseiluarekin batera eginiko proposamenarekin, eskola astearen antolaketa salbuespenez aldatzeko baimena dute. Horrek asteko zortzi oren eta erdiko eskola emanen luke, hots, lau egun eta erdikoa.

2017ko irailaren 15eko gutun bidez, Akademiako departamendurako Inspektoreak Herriarengana jo zuen, eskola denboraren antolaketa zela eta, 2018ko ikasturte sartzeta prestatzeko asmoz.

Bilkura batzuren ondotik, 2018ko urtarrilaren 25eko Kanboko ikastetxe-artereko eskola Kontseilua 2018ko sartzetik aitzina lau egunera itzultzearen alde agertu zen.

Hiru eskolek lau eguneko eskola atera itzultzearen alde bozkatu zuten, azpian ikus daitekeen bezala:

Eskolak	Alde	Aurka
Behereko-Kanbo	6	1
Ama eskola	7	4
Lehen maila	14	4
OROTARA	27	9

Ondorioz, Hezkuntza Nazionaleko zerbitzuetako akademia Ikuskaritzari lau eguneko atera itzultzea ahalbidetzen duen baimen berezia galdegitea komeni da. Hezkuntza Nazionaleko departamenduko zerbitzuetako Zuzendaritza – Pirinio Atlantikoetako DSDENatik ontzat ematen duen agiria jaso eta berehala, antolaketa hori behin betikoa izanen da.

Herriko Kontseilua gonbidatua da:

- 2018 ikasturte sartzetik aitzina lau eguneko atera itzultzeari buruzko iritzia ematera
- Baimena ematen dio Auzapezari, Akademiako Ikuskaritzari eskola denboraren antolaketa berriarendako baimen berezia galdegiteko.

Hiriart-Urruty Andereak bozkak familiek eman duten galdegin du.

Noblia Andereak erantzun dio hiru eskoletako Kontseiluaren bozka dela. Kontseilu horrek irakasle guziak, ikasleen burasoen ordezkariak eta Herriko Etxeko ordezkariak biltzen dituela.

Aiçaguerre Andereak galdegin du burasoak kontsultatuak izan diren.

Noblia Andereak ihardetsi dio, ikasleen ordezkariak burasoen artean zundaketa bat gauzatu zutela. Lehen mailari dagokionez, ehun eta laurogeita zortzi ikasleren burasoetatik ehun eta hogeita hamaikak lau egunera itzultzearen aldeko iritzia agertu dute.

Devèze Jaunak gehitu du, hogeita hamasei bozka emaileetatik, hogeita zazpi aldeko eta bederatzi aurkako bozka izan dela, hots, %75 lau eguneko astaren alde agertu dela.

Aiçaguerre Andereak, alde edo aurka ziren hizlariekin antolaturiko eztabaida edo elkar aditzerik izan den galdegin du.

Noblia andereak baiezkoarekin erantzun dio. Hiruhilekoko lehen Eskola Kontseiluan eztabaida bat izan zen. Orokorrean, irakasleek, aste erditik aitzina, bereziki ostegunetan, ikasleen akidura egiaztatu zuten, ikasleek gelan arreta gutiago agertzen zutelarik.

Bru Jaunak azpimarratu du, gai honekiko zenbakiak ez direla Kanbori dagozkion zenbaki harrigarriak. Bere hautesbarrutian, herri gehienek desmarta bera abian eman dute, EIIJaDen aldekoa den Ainhoako herria izan ezik. Beste herriei dagokionez, orokorrean, lau eguneko astera galdegin dute.

Devèze jaunak bozkatzeraz deitu du.

Gehiengoak onartua.

Aurka bozkatu du: Nathalie Aiçaguerre Andereak. Ez du bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty Andereak.

b) UFCVarekin izenpeturiko merkatuaren gehigarria

Noblia Andereak oroitarazi du, lau eguneko astera itzultzeak Eskolaldi Inguruko Jarduera Denboraren antolatzea kentzera dakarrela. Gaur egun, UFCV Elkartearekin 2018ko urtarrilaren 1ean izenpeturiko merkatuaren baitan (2017ko azaroaren 27 Herriko Etxeko Kontseiluko deliberoa), aktibitate horiek “L’île aux enfants” Aterpetzerik Gabeko Aisialdi Zentroa – herriko AGAZak bermatzen ditu.

2018ko irailaren 1etik aitzina, eskolaldi inguruko aktibitateetarako eta asteazken goizetan familiei eskaintzen zaien zerbitzuaren egokitze berria gauzatuko du AGAZak, Akademiako ikuskaritzari galdegin zaion baimen berezia kontuan hartzeko gisan.

Aterabidea, AGAZeko animaziorako aktibitateen plantan ezartzeari eta segimendua egiteari dagokion zerbitzu emaileekin kontsultatzean aurreikusi zen.

Eskolaldi inguruko antolaketa berria 2018-2019 ikasturtearen sartzean berean finkatuko da, ondoko moldean:

- Astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan, hurrek 16:30ean utziko dute eskola. Haurtzaindegia beharra luketen burasoek haien haurra 18:30ak arte uzten ahalko dute.
- Asteazkenetan, aktibitate eta aisialdi proposamen trinkoa. Haurrak aisialdi zentrorra joaten ahalko dira.
-

Bestalde, UFCVarekin merkatu gehigarri bat izenpetzea beharrezkoa da, EIIJaDei loturiko aktibitateak bertan behera uzteko, eta eskolaz kanpoko aktibitateak asteazken

goizetan ezartzeko. Aldaketa horrek ez ditu UFCVarekin izenpeturiko kontratuan agertzen diren prezioen baldintzak aldatzen, arduren aldaketa bat bazik ez da.

Herriko Kontseiluari galdegina zaio, Auzapez Andereari UFCVarekin Eskolaldi Inguruko Jarduera Denboraren antolatzearen kentzeari eta 20158ko irailaren 1etik aitzina asteazkenetan eskolaz kanpoko aktibitateen plantan ezartzeari dagokion merkatu gehigarri bat izenpetzeko baimena ematea.

Noblia Andereak zehaztu du AGAZak bermatzen zituen EIJaDen hiru orenak asteazken goizera aldatu direla. Ondorioz ez da lanpostu kentzerik.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

14 – A.G.A.Z. Tarifakazioa

Noblia Andereak, FaLKak 650 €-z peko koefizientea dutenendako eguneko 3,60 € ordez 4 € bere gain hartzea erabaki ondoren, 2018ko urtarrilaren 1az geroztik aplikagarri den AGAZaren tarifakazio berria aurkeztu du.

FaLKak bere parte hartzea emendatu du, eta horrek FaLKeko 1 tartean kokatzen diren familien gain den zama apaltzera darama.

Haurrendako asteazkenetako eta oporretako eskolaldi inguruko tarifa da:

Kanbo/Itsasu:

Tarifa, 1. haurra: eguna: 6,25€, 6,65 € ordez
egun erdia: 4,16 €, 4,36 € ordez
Tarifa, 2. haurretik aitzina: eguna: 5,23 €, 5,63 ordez
egun erdia: 3,54 €, 3,74 € ordez

Luhuso:

Tarifa, 1. haurra: eguna: 9,38 € 9,78 € ordez
egun erdia: 6,03 €, 6,23 € ordez
Tarifa, 2. haurretik aitzina: eguna: 8,04 €, 8,44 ordez
egun erdia: 5,23 €, 5,43 € ordez

Beste herriak:

Tarifa, 1. haurra: eguna: 12,31€, 12,71 € ordez
egun erdia: 8,20 €, 8,40 € ordez
Tarifa, 2. haurretik aitzina: eguna: 10,68 €, 11,08 ordez
egun erdia: 7,18 €, 7,38 € ordez

Hiriart-Urruty Andereak dio oposizioko taldeak aldeko bozka emanen duela, prezioak biziki gora direla baderitzo ere.

Bacardatz Jaunak ez du ulertzen zergatik Kanbon ostatu hartzen duten kuristek “Kanboar” gisako tarifa duten. Pertsona horiek ez dute Kanbon zergarik ordaintzen, egonaldi zergak ez du horren konpentsatzea ahalbidetzen. Kanbon ostatu hartzen duen kurista baten eta Luhusoko haur baten arteko desberdintasuna nola egiten den galdegin du.

Irastorza Jaunak pentsatzen du tarifa hori turistei aplikatzen zaiela gehien bat, eta bereziki Aisialdi Zentrorra doazen Kanbon bizi direnen aitatxi-amatxien arrahaurrak. Kurista bezeroak ezaguturik, haur guti dutela uste du.

Bacardatz Jaunak tarifetatik puntu hori kentzea posible den galdegin du.

Noblia Andereak Aisialdi Zentroko zuzendari den Despons Andereari bere galdera helaraziko diola erantzun dio.

Devèze Jaunak gehitu du, tarifa horretaz baliatzen diren kuristen proportzioa esanguratsua den jakin beharko litzatekeela.

Aiçaguerre Andereak adierazi du, tarifa hori, behar bada, uztailea eta agorrilean artatzen diren haurren anai arrebak hunkitzen dituela.

Saint-Jean Jaunak gehitu du, tarifa horrek, agian, kuristak Kanbon ostatu hartzera bultza ditzakeela Ezpeletara, Itsasura edo Luhusora joan ordez.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

15 – herriko besten kariatara, Behereko Kanboko Chapelet korralea eskura uzteko hitzarmena.

Lespade Andereak oroitarazi du, egoitza soziala Behereko Kanboko eskolen karrikaren lean eta Behereko plazan duen jabekidea ordezkatzeko duen Maite Pintenat lehendakariaren eta herriaren arteko hitzarmen izenpetzeaz ari garela.

Kanboko besten kariatara, ostiralez eta asteazkenez, besta komiteak jabekide horrena den lursailaren parte bat okupatzen du. Behereko Kanboko animazioak mantendu daitezen eta Besta komiteak ez dezan eremu horretan kokatzeko arazorik izan, herriaren eta Chapelet eremuko eraikineko jabekidegoaren artean hitzarmen bat izenpetzea komeni da, barneko korralearen eskura uzteko gisan.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du, berak ez duela parte hartuko zehazten duen bitartean, jabekidegoko kide ez bada ere, harekin korrale horretan pasaia zortasuna baitu.

Aho batez onartua.

16 – Langileak: lanpostu sortzea.

Devèze Jaunak adierazi du hiru lanpostu sortzez ari garela:

1) Sasoinerako enplegua mediatekan.

Uda guziez, sasoinerako enplegua sortzen da ordezkatzeko duena, urteko garai horretan oporrak hartzen dituzten taldeak indartzeko gisan. Ondorioz, mediatekako agente sasoinerako permanente enplegua sortzea proposatua da, uztaileko hilabeteko eperako soilik.

Aïçaguerre Andereak galdegin du, laguntza hori zergatik uztaileko baizik ez den beharrezkoa.

Devèze Jaunak ihardetsi dio, gehienetan, oporrak uztaile eta agorrilean hartzen direla, baina agorrilean mediatekak hamabost egunez hesten duela. Ondorioz, beharra uztailean nabaritzen dela partikularki.

2) Bi sasoineko enplegu Arnagan. Kontserbatzaileak luzaturiko galdeari erantzunez, gida lanak egiteko denbora erdiko bi sasoineko enplegu sortzea proposatua da. Lehena bi hilabeteko iraupeneko, apiriletik maiatzerako epean, eta bigarrena sei hilabeteko iraupeneko, maiatzetik urrirako epean.

3) Zuzendaritza laguntzaile enplegua Arnagan. Nahitaezko lan utzialdia galdegin duen langile titularraren ordezkatzeko, Herriko Kontseiluari proposatu zaio, 2018ko apirilaren 1etik aitzina hiru urteko iraupeneko izanen den denbora osoko ondarearen kontserbatzerako laguntzaile enplegua sortzea. Honi dagokion kontratua berritzen ahal den urte baterako finkatuko da.

Aïçaguerre Andereak lanpostua B mailako izanen den galdegin du.

Devèze Jaunak baiezkoarekin erantzun dio.

Langileen taula begiratu ondotik, Aïçaguerre Andereak langile titularra ez zela B mailakoa ohartu dela dio. Kolektibitateak langile horri, kontratatuko den langilearen baldintza beretan, maila horretara pasatzea proposatu zaion galdegin du. zehaztu duenez, langileek galdeak egiten dituztelarik, galdeak lansariaren edo mailaz goratzearen inguruan izan ohi da.

Devèze jaunak ihardetsi dio, begi bistakoa denez, kasu honetan ez dela lansari arazoa izan.

Langile horrekin anitzetan elkartu gara eta, diru ikuspegi soilaz harago, nahitaezko lan utzialdia behin eta berriz galdegin du.

Bacardatz Jaunak, langilea nahitaezko lan utzialdiaren finitzea aitzin itzuliz gero kontratatua izango den pertsonarekin zer gertatuko den galdegin du.

Devèze Jaunak oroitarazi du, ordezkatzeko horri loturiko kontratua berritu daitekeen urte baterako proposatuko dela.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

17 – Auzapezaren erabakien jakinaraztea.

Lurralde Kolektibitateetako Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen eta 2017ko uztailearen 22ko Herriko Kontseiluko deliberoaren arabera, Devèze Jaunak, 2017ko azaroaren 26tik 2018ko otsailaren 10era, hilerriko kontzesioen esleitzeari eta hartzeari dagozkien erabakiak jakinarazi ditu:

15 urterako kontzesio berritzea: 1

Hilobi kontzesio esleitze horrek sortu duen diru sartzea 220 €-koa da.

18 – Orotariko galderak.

- Devèze Jaunak ondoko Herriko Kontseiluen datak jakinarazi ditu.
2018ko martxoaren 12an, astelehenez: Aurrekontu Orientabideen eztabaida,
2018ko martxoaren 19an, astelehenez: 2018ko jatorrizko aurrekontuen aztertze aitzineko finantza batzordearen bilkura,
2018ko martxoaren 16an, astelehenez: Jatorrizko Aurrekontua.
- Auzapez Andereak Eссор Basqueko Lehendakariaren gutuna jaso du, zeinean Christian Bidal lehendakari Jaunak, Eссор Basque Kanbotik iragan zenean honen antolakuntzan diruz laguntzeagatik baina baita parte hartze logistikoagatik ere herria eskertzen duen.
- Devèze Jaunak adierazi du, bizitzaile berrien harrerari dagokion usaiatzko ekitaldia 2018ko martxoaren 17an, 10:30ean, iraganen dela herriko etxean.
- Devèze Jaunak Herriko Kontseiluko kideei jakinarazi die, EHEak antolatzen duen “Errobi Zero Zabor” operazioa 2018ko martxoaren 4an, igandearekin, hiru lekutan iraganen dela: Larresoron, Ortzaizen eta Bidarrain.
- Devèze Jaunak, elurra, izotza etab... dela eta, departamendua aroaren zaintza alerta liranja pean dela adierazi du.
- Devèze Jaunak, isunen tarifen aldaketa jakinarazi die Herriko Kontseiluko kideei. Kanbo baino handiagoak diren hirietan zabal eztabaidatu dela adierazi du, baina aparkatzearekin lotuak diren isunendako. Holakorik ez duen Kanborendako, herriko aparkatzearekin loturiko isunak 17 €-tik 35€ra pasa dira. Tarifa hori legez inposatua da, ez da kolektibitatearen erabakia izan.
- Aïçaguerre Andereak, 2017ko azaroan denbora erdiz harreraren eta denbora erdiz giza baliabideetan aritzeko sortu zen enpleguari buruzko galdera helarazi du gutun bidez. Kontrataturiko pertsona enplegua utzi du eta, otsailaren 1az geroztik, beste langile batek ordezkatzen du. Pertsona hori baldintza beretan kontratatu den, funtzio publikoko langilea den eta lekualdaketa batez ari garen galdegin du.

Devèze jaunak ezezkoarekin erantzun dio. Auzapez andereak beste maila batean kontratatu duen eta administrari laguntzaile gradua duen pertsona hori, bete beharreko lanen baitan behaturiko haren gaitasunengatik kontratatu da. Ondorioz kontratupeko langilea da.

Aïçaguerre Andereak postu hori B mailan sortu zela zehaztu du.

Devèze Jaunak baiezkoarekin erantzun dio, haatik, lanpostu hori urgentziaz bete behar zela gehitu du. Ondorioz lanpostua kontratupeko langile batek bete du, Auzapez Anderearen oniritziarekin.

Aïçaguerre Andereak B mailan sorturiko lanpostu hori kendu behar denez galdegin du.

Devèze Jaunak zehaztu du, B mailako enplegu hori nehork betetzen ez duenez, aurrekontuan eraginik ez duela eta ez dela gisa horretan irekia eta bete gabea den lanpostu bakarra. Orogen buru kentzea komeni baldin bada, puntu hori Herriko Kontseiluan aipatu da.

- Hiriart-Urruty Andereak “pixka bat molde arbitrarioan” eginak diren kontratatze horiei buruzko hausnarketa bat egin du. Dirudienez, hautu horiek auzapez Andereak egiten ditu, baina lanpostu batzuk “irekitzen” direlarik kanboarrak jakinean izan beharko luketela deritza. Inguruko beste herri batzuetan hola gertatzen da, langileak xerkatzen direlarik afitxatze paneletan agertzen da. Kanboarrak baitira, halere, langile horiek ordaintzen dituztenak. Ondorioz, gaitasun berendako, kanboarrei, euskaldunei eta behar bada ere jadanik langile direnei, gisa horretako lanpostu batek interesatzen dituen galdegin beharko litzaieke.

- Devèze Jaunak ihardetsi dio langileen kudeaketa Auzapez Anderearena dela. Lanpostu hori sortu zelarik, lehenbailehen ordezkaketa egiteko beharra azpimarratu zen, bereziki egoera zibilar zigokionez. Kontratatzea ez da arbitrarioa izan, Auzapez Andereak, langile horrek lanposturako beharrezkoak ziren gaitasunak zituen aztertu zuen, aitzinetik eremu publikoan lan egiten ez bazuen ere. Ondorioz, Devèze Jaunak ez du Auzapez Andereak hautaturiko hautagaiak lanpostu hori betetzeko beharrezkoak diren gaitasun guztiak dituenik dudatzen.

Lanpostu hori bete izan den moldeari dagokionez, ez da kasu berri bat.

Hein desberdineko mailetan, beharrak hala galdegiten zuelarik, lanpostuak gisa horretan bete izan dira eta hori funtzio publikoko titularrengana sistematikoki jo gabe. Euskaldun izateari dagokionez, denak hunkitzen dituen gaia da baina arazoa zen egoera zibileko kasu berezi horretan lanpostua fite bete behar zela. Hala egin izan zen eta Auzapez Andereak lehentasunez behatu duen gaitasuna izan da.

Hiriart-Urruty Andereak Devèze Jaunari erran dio, Kanboko herriko etxean lanpostu bat sortzekoa delarik kanboarrei jakinarazteari buruzko puntua ez duela aipatu. Kanboarrek ordaintzen dituzte, halere.

Devèze Jaunak erantzun dio, kanboarrek lanpostu guztiendako ordaintzen dutela. Auzapez Andereak postua betetzea ahalbidetzen zuen kalitatezko pertsona bat eskura fite ukan ahal izan du eta bere eskumen bereziak normalki baliatu ditu.

Eta berriz zehaztu du beste gisa horretako kasurik badela. Azterketa zorrotza egiten ahalko litzateke baina oposizioko taldeak arazoa ederki ezagutzen du, haietarik batzuk ere, maluruski, ez direlarik euskaldunak...

- Bacardatz Jaunak herriko bestak aitzinatze erabakia nork hartu duen eta hori justifikatzen duten arrazoiak zein diren galdegin du. Gai hori ez zen animazio batzordean eztabaidatu.

Lespade Andereak erantzun dio, heldu den urteko besten datei dagokionez, herriak Gaineko Kanboko besta komitearen galdea ukan duela. Honek, bestak agorrilaren 4ko asteburuan iragatea nahi zuen et ez Luhusoko, Heletako eta Garaziko besten asteburuan. Gaia gehiengoko talde mailan aipatu da eta erabaki bat hartu.

Bacardatz Jaunak helburua Luhusoko, Heletako eta Garaziko bestak saihestea zela egiaztatu du.

Lespade Andereak erantzun dio arrazoiatariko bat zela.

Bacardatz Jaunak Ezpeletako bestak kontuan hartu diren galdegin du.

Lespade Andereak ihardetsi dio, gazteek Luhusoko bestek Ezpeletakoek baino kalte gehiago eginen dietela uste dutela. Bi herriek egitarau bera lukete ostiralean, hots, zikiroa: ostiralean oinezko lasterketa legoke Kanbo, eta igandean Luhuson.

Bacardatz Jaunak gehitu du, ostiral arratsean zikirioa izanen dela Ezpeletan baina hori ez dela jenagarri. Kanboko bestak agorrilaren 10ean direla dioen tradizioaren parean arrazoa diru mailakoa dela ongi ulertu du, besta ekonomikoak izanen dira eta ez herriko zaindariaren bestak. Herriko zaindaria Jondoni Laurendi dela zehaztu du.

Bardin Jaunak zehaztu du bestak antolatzen badira jendea ukaiteko egiten dela. Izan ere, besta horiek inguruko herrikoekin batean baldin badira, jende gutiago izateko arriskua bada. Ez da diru sartze kontu bat.

Bacardatz Jaunak orain dela hiru urte izan zen bilkura bat gogoan du, zeinean kolektibitatea Ezpeletak bere bestak dataz aldatu zituelako kexatu zen, eta hau Ezpeletarekin harremanetan sartu zen herriko Zaindaria errespeta zezan galdegiteko. Hiru urte berantago Kanboko herriak gauza bera eginen du. Herriak Garaziko eta Luhusoko egitarauak ezagutzen ote ditu? Kanbo eta Ezpeleta arteko egitarauetan ostirala, larunbata eta igandea berdin berdinak diren egunak direla zehaztu du. Urteetan, Kanboko bestak agorrilaren 15ean izan dira eta ez zen neholako arazorik.

Lespade Andereak ihardetsi dio heldu den urteko bestak agorrilaren 16an finituko direla eta, asteburu horretan mantentzen badira, herriak emaitza ikusiko duela.

Bacardatz Jaunak ohartarazi du Gaineke Kanboko komiteak hartu duela besten data aldatzeko erabakia.

Lespade Andereak erantzun dio, Gaineke Kanboko komiteak gehiengoko taldeak aztertu duen galdea egin duela.

Bacardatz Jaunaren iduriko, orain arte, besten datak komiteek erabakitzen zituzten, ez da sekulan herriaren erabakia izan.

Lespade Anderearen ustez, hortik kanpo gertatzen diren beste gauzak ikusirik, egun, Kanboko besten inguruko eztabaida egitea biziki larria dela. Kanboko besten daten inguruan oren luzez eztabaidatzea baino hoberik egiteko bada.

Bacardatz Jaunak Kanboarrei galdera pausatzeko galdegin dio. Garrantzizko puntua dela uste du eta kanboarrek ez dutela aldaketa gustuko.

Lespade Andereak erantzun dio, sare sozialetan anitzek idatzi ohi duten bezala: “gaiz kanpo”.

Finitzeko, Devèze Jaunak gehitu du, herriak, aurtengo bestak nola iragaten diren behatuko duela eta ondoko urterako gogoetatuko. Eztabaida egon da, aldeko eta aurkakorik izan da, herriak Gaineko Kanboko komitearen galdea segitu du.

Bacardatz Jaunak gehitu du, iragan zen bilkura publikoan, Behereko Kanboko komitea data jakitean harritu zela.

Lespade Andereak atsekabetua da baina Behereko Kanboko komitea lehen bilkurara jin zen eta haren ordezkariak bi erranaldi baizik ez zuten atera. Bigarren bilkuraren bezperan, sare sozialetan Behereko Kanboko komitearen agiri bat izan zen bilkura hartara kopuru handian joan behar zela erranez. Hogeita hamabost kideetik, zenbat agertu ziren bilkurara gaiari buruz eztabaidatzeko? Bat ere ez.

Bacardatz Jaunak eztabaida hori animazio batzordean gertatzea preziatuko zukeen. Honek bere iritzia emateko parada ukanen zuen eta, gisa horretan, ez zuen aldaketaren berri bilkuran ukanen. Behar bada, haien bestak Jondoni Laurendirako aurreikusten dituzten elkarte edo komertsantak harritu dira.

Aiçaguerre Andereak gehitu du, behar bada, haien oporrak bestendako finkatzen dituzten kanboarrak badirela.

Devèze Jaunak erantzun dio, aurtengo oporrak aldatzen entseatzea komenigarri litzatekeela.

Devèze Jaunak Herriko Kontseiluko saioa 21:15ean finitutzat eman du.